

GUDALDIA: ERRUSIA 'RA IKUSTALDIA

Barandiaran'ek batutako testigantzen artean Busturia'tar Julian'ena da bat, 1938n. urteko urterilaren 14n. egunean izenpetua. Ortze agertzen da aldi aretan Errusia'ra egin eben ikustaldiaren barria. Jakingarri asko dagoz or eta orregaitik idazten dogu lan au. Egia esan, euskaldunai ez jaken atsegin izan Errusia.

Urrillaren 23n. egunean joan nintzan Errusia'ra: ELA'edo Orduan esaten zan lez Soli'ren ordeztu niñoiari. Errusia'ko Gobernuak deitu eutson España'koari langilleen ordeztu batzuk bialtzeko sobiet sortu zala urteak betetzen ziralako.. Irujo izan zan guri dei ori ekarri euskuna.

Bilbao'tik urten giñan guda-ontzi baten urrillaren 23n. egunean. Egun beratan eldu giñan Donibane Loitzun'era. Goizeko seiretan urten giñan emendik eta 25n. egunean goizeko ordu bietan eldu giñan Bartzelona'ra. Emen batu giñan beste amabi bide-lagunegaz.

30n. eguneran Batzelona'tik urten eta 31n. egunean eldu giñan Paris'era. Emen iru egun egin eta London'era joan giñan eta egun bat egin gendun uri onetan. Londontar areik itxura txarrekoak ziran gutzat

Finlandia'ra urrango. Gero Kopenhage'n beste egun bat. Urrango Leningrado'ra. Ondo artu ginduezan, kaleak apainduta eta lorak emonda. Ona arte 3n. maillako jesarlekuak geunkazan, baiña emendi aurrera l' maillakoak. Janariak ugari emon euskuezan. Erriko jentea txiroa eta txarto jantzia zan.

Leningrado urira urreratu giñanean polizi batzuk gure politika- eritxiak eskatu euskuezan, baita zein lan egiten gendun eta zein sindikatotakoak giñan. Nik marralaria nintzala eta JEL'tzalea esan neutsen. ELA edo SOLI'koa.

Gu ikusi ginduzan jakitun batek, zelakoak giñan itandu eutsoenean, "langilleak izan ezin edeoz" erantzun eban.

Erri-aurrean aurkeztu ginduezan, millak personak egozan plaza baten. Askok egin eben erri-aurrean berba, errusiera'ra itzulikeran edozen gauza esaten eben itzultzaileak.

Ostatu-etxe aundi batera eroan ginduezan. Orkestea ba-egoan baiña serbitzailleak txarto jantzita. Ondo emon euskuen jaten.

Lantegi bat ikustera eroan ginduezan: Funditzaileak, doitzailleak... ondo lan egiten ikusi genduzan. Lantegian ez neban ikusi jan-tokirik eta osasun-tokirik be ez. Fresadora bat ikusi nai izan neban astiro, baiña ez eusten itzi.

Beste toki asko ikusi genduzan.

Tzar'en etxea ikustera be eroan ginduezan, anbar utsezko gela bat, beste bat marfil utsezkoa, dantza-leku ederrak... Orain langilleen atsedeen-lekua ei zan.

Iru egun egin genduzan Leningrado'n. Andik Moskou'ra... An aurkitu genduzan España'tik joan-

barriak ziran langilleak. Ogei inguru ziran eta emakumeak eurentatik lau.

Zer ikusi gendun? Egunean egazkin bat egiten eban lantokia, euntegiak, narrukiak... Metroa be ikusi gendun, oso modernoa eta ona. Eskekorik ez neban ikusi, elbarrituen bat izan ezik.

Emagalduek be ikusten ziran kaleetan. Sifilis'en aurkako gaiso-etxeak be ba-dagoz.

Ez dot sekula iñon ikusi Moskou'n ikusi neban beste mozkorti kaleetan.

Emakumeak dira kale-zain gauetan eta otzikaraz ikusten dira.

Egun bat egin gendun Lenin'en museoa ikusten. Antxe dagoz agirian Lenin'en ikasle-aldiko notak: danetan 5, lojikan 4.

Lenin'en illobi-ondotik igaro giñan. Antxe dago gorpua ukenduz igortzita. Gure Aita esan neban bere alde.

Beste egun baten Kemlin'a ikusi gendun: urre-bitxiak eta eleiz-jantzi ederrak ugari.

Umeen zine batzuk be ikusi genduzan.

Nire lagun baten adiskidea zan anarkista bat ikustera joan giñan. Emaztea aurkitu gendun etxean, bera Siberia'ra bialduta egoan bost urterako, Errusia'ko agintaritzak kaka zala esan ebalako. Andra arek ume bat eukan etxean eskarlatina'gaz eta ezin eban lortu lekuri gaiso-etxean. Zapata-lantegi baten egiten eban lan eta 180 rublo irabazten ebazan illean, eta alkilerre 12 rublo ordaintzen eban. Urrango egun baten ara joan eta beste emakume bat aurkitu gendun. Onak be semea Siberia'n eukan. Eleiza batera be joan giñan eta ainbat egozan otoitzak egiten.

Dana egoala karu ikusi gendun. Nik aldean neukazan zapatak Bilbao'n 50 pezeta balio eben, Errusian 300 rublo. Maisu baten illean 400 rublo irabazten dauz. Eskoletan ez egoan kurutzerik, baiña bai ugarri Lenin'en eta Estalin'en argazkiak lorakaz.

Jenteak etxura tristea eta txiroa dauka kaleetan.

Amabost egun egin genduzan.

Kieb'era joan giñan eta erlejiñoaren aurkako museo bat ikusi gendun: Abadeak arro jantzita, zelan iruzur egiten dautsen erritarrai, okerreko eziketa emoten ebela, emakume bat billosik txakur bateri titia emoten semea negarrez lurrean egoala, gizona iruzurtu eban emakumea billosik kalean atzean abade bai ebala...

Bizi giñan ostatuan, atean, emakume bat egoan eskean.

Kieb'en iru egun eginda, barriro Moskou'ra joan giñan, gero Leningrado'ra, eta emen Siberia izeneko itxas-ontzi bat artu gendun eta emoitze lez 15 libra emon euskuezan bakoitxari.

Eta etorteko London, Paris, Toulouse, Baiona, Bilbao. 1936ko Natibitate goizean eldu nintzan.

OLAZAR'tar Martin'ek